

# HERNAN CORTES

*España'tik Ameriketara joan ziran urre-zaleen artean daukagu Hernan Cortes ospetsua.*

*Badajoz'eko Medellin errian jaio zan 1485n. urtean. Buru argikoa, jakituna ta zurra zan.*

*Salamanka'n egin ebazan ikasketak baiña Ameriketatik etozan urre-zaratak lilluratu eben eta ara joan zan.*

*1511n. urtean Kuba'n daukagu eta an egoan Diego Velazquez'ek beragandu eban zurra zalako. Onek bere senitartetik emon eutson emaztegaia be, eta Yukatan'era bialdu eban billaketak jarraitzeko.*

*600 gizon eroiazan beragaz. Jainkoari eskintzeko gizakiak erailtea debekatu eban eta antxe artu eban Mexiko'ren entzutea. Orrek aiztu eragin eutson Velazquez laguna.*

*Moktezuma aurkitu eban an, azteka'en agintari baiña onek ez eutson laga beragana urreratzen, Cortes'ek sarritan eskatu arren.*

*Azteka'tarren arrerioak ziran zempoala'tarrakaz egin zan lagun eta oneikaz bat eginda, azteka'tarren inperioa eskuratzea erabagi eban, euren artean banatuta eta alkarragaz burrukan ebiltzala ikusi ebalako.*

*Moktezuma'ren inperioa, Inka'tarrenaren antzekoa zan, aginte gogorrekoa, odol-zalea, eta eurentzat espāñatarrak etortea salbamena zala uste eben. Oneik izango ziran euren askatzaillak.*

*Hernan Cortes'ek bere burua gobernatzaillak izendatu eban eta Mexiko-barrurra sartu be bai, baiña lenago bere itsas-ontzi guz-ak apurtu ebazan iñok iges egin ez egian.*

*1519n. urtean azpiratu ebazan tlaxkatelkak eta bizirik urten ebenak laguntzaillak artu ebazan.*

*Cortes erail nai izan eben inditarrak baiña Malintxe emakumeak salatu ebazan. Cortes'ek artu-emon onak izan ebazan onegaz eta onen bidez eldu zan inditarrakaz 1519n. urtean Moktezuma'ren aurrera, Malintxe bera interprete zala.*

*Moktezuma'k ez eban nai gudarik, baiña espāñatarrak etorri jakozan Cortes'eri aurka eta laster azpiratu eta geratu ziranak gudari artu ebazan.*

*Moktezuma'ri eskatu eutson erria baretzeko eta au berba egiten egoala, azteka baten arrikada batek erail eban.*

*Txarto aurkitzen ziran Hernan Cortes eta lagunak: Inguaratuta, gosez, gitxituta... Zer egin? Atzeratu, erretiratu. 1520n. urtean izan eben "Noche triste" deritxona*

*Azkenean Otumba'ko gudaldia egin eben eta azteka'k betiko azpiratu ebazan. Or amaitu zan euren inperioa.*

**OLAZAR'tar Martin'ñ ek**

## LURRA

*Euskaldun lur maitea, berezko zara eder seme alabentzat, zu ta zure umeak elkarren gutun gara euzko lurrarentzat*

*Mendi ta zelai ederrak daukazuz babesean biziaren pozez, lantegi ugariak agertzen dira nun-nai bizitza omenez.*

*Maitegarria zara euzko lur emoillea zure on-bidean, zuri begira dagoz euzkotar seme onak zuzentasunean.*

## ITZA

*Itz ederrik nai ba da bizia poztuteko, zoaz Euskadira izkuntz jakintsua da euskaldun semeena itzetik itzera.*

*Jakituri ta biotz biok dabiltz batera miñak alkarturik, izkuntz berezia da euzkoak dakarrena alkartasunetik.*

*Usain gozozko lore bitxirik ederrena dabil gizonetan, euskera maitegarri sortu dau euskaldunak euzkotar itzean.*

## BIOTZA

*Bizi ardatza zara urrezko bitxi ori gizonen barnean, zure menpe daukazuz azur, odol, aragi bizitz ederrean.*

*Urtien gora-beran giza seme guztiak zuri deiez dagoz, bizia maite nai dau gizzon zoragarriak zure amodioz.*

*Biotz maitegarria zabaldu gaixoari bizitza ateak, ta maitasun gozoaz eztitu goitik-bera samiñen nekeak.*

**PAULIN**